

I.— Iztegi beñiaren lanetan jardun du Euskaltzaindiak. Lendik, euskaltzain jaun bakoitzari bidali zitzaion lenbiziko orien xerendatxo bat, auxe ongi aztertuta, batzaraldian zerbait geiago, egoki bazan, adierazteko. Adierazi dute euskaltzañiak beren iritxia ta ontaz, lenbiziko sail-onetsia laxter argitaratuko da.

II.— Euskaltzaindiak itz-beñien arazo neketsuan jardun du.

III.— Azkue jaunak bere lana irakurri digu: *Gipuzkera osotuta*.

Beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoitzez amaitu zan batzaraldia.

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1934-ko Otsailaren 23-an.

Euskaltzain jaun abek bildurik daude: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe, Elissalde. Urgazle jaunak: Ormaetxea ta Oleaga.

Otoitz egin da.

I.— Urkijo jaunak ekañi digu bere *facsimile* bat, oraintxe argitaratua, lendik iragañirik bai-zeukan. *Facsimile* au Bernardo Etxepare jaunaren liburuari dagokio, *Linguae vasconum primitiæ*.

Bañan itz-aure eder bat, berak idatzia, irakurri digu *Introducción a nuestra edición*, Etxepare zanaren bizi-beñiak emanik eta bere liburu onek izan dituan gorabera guziak.

Euskaltzaindiak, gogo atsegiñez ikusi du Urkijo jaunaren lan auxe ta beroni eskerak damazkio.

II.— Eguskitza jaunak Joanes Leizañaga'ren liburutik-edo *Bibliako Catezismotik* jasotako itz gogoan-gañi batzuek esan dizkigu. Aditzari dagozkion esakera

batzuek ere adierazi dizkigu, agian orainarteraño entzuten ez diranak.

III.—Urkijo jaunak ekañi dizkigu euskal-itz batzuek. Burdiñolai dagozkienak dira. Arozena jaunak *Archivo*-etan idorotakoak omen dira.

IV. — Euskaltzaindiak eskeñak damazkio Jorje Bertolasso Stella jaunari, oraintxe argitaratu dituen bere bi liburuen eskeintzagatik. Liburu abek dira: *Vestigios da Lingua Primitiva* ta *A vida científica de Trombetti*.

V.—Euskaltzaindiak lan-batzaldi bat egin nai luke. Lanen gaia auxe izango da: *Método práctico para la enseñanza del euskera a los niños de las escuelas*, ta naiz gipuzkeraz naiz bizkaieraz idatzi diteke.

Lan aben epea datoñen urte 1935 -ko Otsailaren azken-egun arte izango da, ta Euskaltzaindiaren etxera biali bear dira *Ribera, 5, Bilbao*. Beste oarpi-deak beste batzaldietan bezela.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez bukatu da batzaraldi auxe.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934 -ko Joñailaren 24 - an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta Ormaetxea urgazlea. Otoitiz egin da.

I.—Altube jaunak, Iztegia dala-ta, oarpen batzuek dakarzki. Lan au egiteko norbait berezi bear litzake. Euskaltzaindiak ontarako Joan Gorostiaga jauna aukeratu du.